

Zertan den Nafarroa – Situación Navarra

2020



Nafarroako ekonomiaren aurrikusitako bilakaera

2020ko Abendua

Nafarroako BPGa % 10,6 murriztu liteke 2020an, eta % 6,0 igo 2021ean. Horren ondorioz, 3.000 lanpostu inguru suntsituko lirateke biurtekoaren amaieran, 2019ko itxierarekin alderatuta, eta langabezia-tasa ehuneko 2,6 puntu igoko litzateke, 2021ean % 10,9ra iritsi arte, autonomia-erkidego guztien artean txikiena izaten jarraituko baitu.

Aurtengo jaitsieraren arrazoiak dira, pandemiarekin lotutako ziurgabetasuna areagotzea, kutsatzea saihesteko beharrezkoak diren konfinamendu- eta urruntze-neurriak ezarri beharra eta berauek uste baino gehiago luzatzea. Baina eskualdeko BPGren uzurtzea Espainiako batez bestekoa baino (-% 11,5) ia puntu portzentual bat txikiagoa izango da. Diferentzial positiboa justifikatzen duten faktoreen artean honako hauek daude: pandemiaren inpaktu txikiagoa kontsumoan, gastu publikoaren bultzada handiagoa eta kontsumo sozialeko sektoreen pisu txikiagoa. Bereziki, turismoarekiko esposizio txikiagoa eta ez-egoiliarren mendekotasun txikiagoa. Horren guztiaren ondorioz, krisiak eragin txikiagoa izan du lan-merkatuan ere.

Osasun eta ekonomia ziurgabetasuna, eta kutsatzeak mugatzeko beharrezkoak diren eskaintza-murrizketak dira lehen seihilekoan ikusitako kontsumoaren uzurtzearen arrazoi nagusiak. Familien gastuaren doikuntza osasunari eta lan-egoerari buruzko zalantzek, konfinamendu-neurrien iraupen handiagoak eta urruntze sozialak eragin zuten. Hala, Nafarroan Espainian baino gutxiago murriztu ziren, pandemiaren unerik gogorrenetan, bai salmenta puntuko terminal (SPT-TPV) operatiboek (hainbat sektoretan gertatutako itxieraren neurria ematen dute), bai erkidegoan kreditu- edo zordunketa-txartelekin¹ egindako gastua (% 59 eta % 47 apirileko lehen hamabostaldian foru-erkidegoan, Espainiako % 70 eta % 52ren aldean, hurrenez hurren). Beherakada nabarmenagoa izan zen garraio, kirol, bidai eta moda, ostalaritza eta jatetxeen sektoreetan, % 75 eta % 90 artekoa. Aitzitik, konfinamendu-testuinguruak eta epidemiaren aurkako borroka kontsumoa berbideratu zuten, merkataritza elektronikoa, elikadura-produktuak eta osasun-zerbitzu eta -produktuak bultzatuz. Hala ere, eragin negatiboenak dituzten sektoreek pisu txikiagoa dute Nafarroako ekonomian estatuko batez bestekoan baino. Hori dela eta, eskualdeko BPGren gaineko eragina ere zertxobait txikiagoa izango zen 2020ko bigarren hiruhilekoan: -% 17,3 h/h; Espainian, berriz, % 17,8koa.

Krisiaren eragina, esanguratsua izateaz gain, heterogeneoa izan zen sektore edo kolektiboen artean, eta desberdina 2008an ikusitakoaren aldean. Gazteen artean enpleguaren beherakada handiagoa izan bada ere, aldaketa demografikoaren ondorioz, Espainian 35 urtetik gorakoak enplegua galdu duten pertsonen erdia baino gehiago dira krisi horretan (2008-2009an bosten bat ziren). Sektoreen ikuspuntutik, eraikuntza ez da, lehen aldiz denbora luzean, krisiaren eragileetako bat. Aitzitik, tradizionalki beste ziurgabetasun-aro batzuetan babesleku izan ondoren, ostalaritzak neurri handiagoan jasan ditu epidemiaren ondorioak (-% 12,5eko afiliazio jaitsiera otsaila eta maiatza bitartean), langile, enplegu-emaila edo kontsumitzailearen presentzia fisikoa ezinbestekoa den jarduerekin batera (-% 8,9ko jaitsiera, afiliazio osoaren % 3,4koaren aurrean). Eskualdean jarduera horiek pisu erlatibo txikiagoa dutenez eta atzerriko eskariarekiko mendekotasuna txikiagoa denez, enplegua gutxiago uzurtu zen baina, aldi berean, telelana gutxi erabiltzea ahalbidetzen duten sektoreetan espezializatua izateak, hala nola industrian, diferentziala murriztu zuen. Nafarroa izan da, urrira arte, enplegu-erregulazioko espedientea gutxien aktibatu duen erkidegoetako bat. Genero-ikuspegitik, krisi hau berdinzaleagoa izan da, emakumeei eta gizonei antzera eragin baitie, 2008an ez bezala. Hori, neurri handi batean, ostalaritzari zor zaio, azaroan ikusi baizen nola emakumeengan eragin handiagoa zuten Nafarroako ALEEEK. Azkenik, eskualde ikuspegitik, ikusten da eragina handiena izan zuen unean, ekainean, Iruñerriak eta Sakanak izan zituztela enplegu-galera handienak (% 4tik

¹ BBVAren bezeroen txartelekin edo Nafarroan BBVAk dituen STOetan burututako gastua.

gorakoak), funtsezko ez ziren jardueren pisu erlatibo handiagoagatik, gibeletik Erriberako eskualdeak zituztela eta, aldiz, galerak ez zirela % 2ra iritsi Bidasoan, Izarbeibarren edota Erdialdean; eta are gehiago, Pirinio-Aurre eta Zangozerraren baturan ere gora egin zuela enpleguak, industria eta eraikuntza jardunek bultzatuta. Hala ere, urriko datuei erreparatuta, Iruñerriko afiliazioa eskualdeko batez bestekoa baino gehiago hobetu da jadanik.

Kutsatzen murrizteak eta murrizketen malgutzeak susperraldi handia ekarri zuten deseskalatze garaian, bultzada fiskal eta kredituaren bultzada esanguratsuak lagunduta, bai estatuan, bai Nafarroako Gobernuaren aldetik. Azken kasu horretan, Nafarroa Suspertu urte-anitzekoaz gain, martxotik hainbat plan martxan jarri BPGren % 2 inguru mobilizatu ahal izan zuen, enpresei abalaz eta kredituak emateko eskainitako 100 milioi euroak, eta autonomo, udal eta ostalaritzari emandako zuzeneko laguntzak barne.

Baina murrizketen malgutzeak ez zuen eragin berdina izan sektore guztietan: erlaxazio goiztiarragoa izan zutenek egin zuten gora lehenik. Merkataritzaren eta industriaren hasierako susperraldia handia izan zen, baina zerbitzuen kasuan motelagoa izaten ari da: aisialdiari eta gizarte-kontsumoari lotutako sektoreen hobekuntzak atzetik jarraitzen du. Apirila eta maiatzan erabat itxi ondoren, ekainaren amaieran kanpoko mugak berriro irekitzeari esker, uztaila eta iraila bitartean ia 170 mila turista sartu ziren (urtebete lehenago iritsi zirenen % 45,6, San Fermin jaiak bertan behera uzteak mugatuta). Nolanahi ere, mugikortasuna berreskuratzeak turismoaren errebotea erraztu zuen eta, Nafarroan, batez ere, espainiar egoiliarren menpe dago berau. Horri esker, esportazioen gorakadarekin eta zerga-bultzadarekin batera, BPGak % 18,3 h/h inguru egin zuen gora 2020ko hirugarren hiruhilekoan, Espainiako % 16,7 h/h baino puntu eta erdi gehiago.

Aurrerantz, dezelerazio nabarmena espero da urteko hirugarren hiruhilekoan ikusitakoaren aldean, kutsatzen bigarren boladak Europako eta Espainiako ekonomian izan dezakeen eraginaren ondorioz. Urrian eta azaroan COVID-19 kasuen intzidentzia handitzeak eta hartutako murrizketek ziurgabetasuna areagotzea ekarri dute. Hori bereziki islatzen da inflexio-puntu batean (okerrera), Europako jardueraren ekonomikoaren bilakaerari buruzko inkestetan. Oraingoz, badirudi narriadura horrek ez duela eraginik AEBetan edo Txinan. Hala ere, susperraldiaren ahuleziak kezka sortzen du gorabidean diren zenbait herrialderen kasuan. Espainian eta Nafarroan, hainbat adierazlek erakusten dute hobekuntza indarra galtzen ari dela. Hala erakusten du BBVAren, edo BBVAren SPT-TPVetan, txartelek egindako gastuak: ekainetik urrira bitartean urterako % 7tik gora hazi zen arren, azaroan % 8ko beherada izan du urte-arte tasan. Urriaren bigarren erditik aurrera progresiboki indarra galdu du, foru-erkidegoa konfinatu eta hilaren 22an ostalaritza itxi zenetik. Murrizketa hori nabarmenagoa da pandemiaren eraginpean dauden sektoreetan, hala nola bidaia, ostatu, aisialdi edo jatetxeetan. Hala, ezarritako eskari-politiken bidez susperraldia luzatzeko itxaropenari eutsi arren, hazkunde-itxaropena moteldu egin da urteko azken hiruhilekorako. Bestalde, Nafarroako esportazioak Espainiakoak baino okerrago moldatu dira irailera arte (-% 16,3 eta -% 3,6, hurrenez hurren). Horren arrazoia foru-erkidegoko automobilgintza sektorearen ahultasun eta, pisu erlatibo, handiagoa da, kanpoko salmentak % 32 murriztu baitira, Espainiakoak baino 13 puntu portzentual (pp) okerrago. Hala ere, gainerako esportazioen batura zertxobait hobea da Nafarroan: % 11ko beherakada, estatuko batez bestekoa baino 4 pp gutxiago. Eta hori, elikagaien esportazioak % 3 igo direlako eta ekipamendu-ondasunak % 3 soilik jaitsi direlako (Espainian baino 13 pp gutxiago). Hala ere, erkidegoaren merkatal-bazkide nagusietako batzuen osasun-adierazleen narriadurak eragin negatiboa izan lezake sektore horien aurreikuspenetan datozen hilabeteetan, bai eta automobilgintza sektoreak berez dituen eta, bereziki Nafarroari eragiten dioten, erronketan ere.

Kontsumoko gastuari eragiten dion ziurgabetasunak inbertsioarengan ere eragina izan dezake, eta beronen berrindartzea mugatu. Kapital finkoaren eraketa gordinaren zenbait adierazlek seinale negatiboak ematen dituzte, inbertsio pribatu ahulago bat aurreratuz: alde batetik, irailera arte kapital-ondasunen inportazioa % 20,6 murriztu zen urte arteko tasan erkidegoan, Espainian baino 7,1 pp gehiago. Bestalde, etxebizitza berrien eraikuntzarako bisatuak % 43,6 murriztu ziren Nafarroan aurtengo irailera arte, estatuko batez bestekoa baino 16,9

puntu gehiago. Gainera, martxotik uztaile bitarte, covid-aurreko joerak erakusten zuena baino % 32 etxebizitza gutxiago salerosi ziren. Prezioek % 13 egin dute gora 2014ko gutxienez baino, aurtan, hirugarren hiruilekora arte, doikuntza bizkortu dute, % 1,0ko jaitsiera metatuarekin, Espainiako batez bestekoaren antzera. Hori guztia, erkidegoan saldu gabeko etxebizitza berrien gaitzeskaintzarik egoteke. Hala, administrazio publikoen kontsumoa eta inbertsioa egonkortzaile ekonomiko izan litezke, pandemiari erantzutea beharrezko baita. Horrek, Foru Gobernuaren kasuan, defizita BPGren % 2,6 ingurukoa izatea ekar lezake.

Funtsezkoak izango dira datozen hiruhilekoetan hartuko diren neurri publikoak eta horien ezarpena, bai Europako funtsei dagokienez, bai horiekin batera egingo diren erreformei dagokienez. Alde batetik, barne-eskari bultzatzeko hartu neurri fiskal eta kredituzkoak, hastapenetan giltzarri izanak, indarra gal dezakete abian jarri eta sei hilabetera. Europako Banku Zentralaren eta ICOren politiken, edo indarrean den ALEEn araudiaren zenbait alderdi berrikusi beharko lirateke, susperraldiaren jarraipena sendotzeko. Bestela, enpresa-ehunaren zati handi bat galtzeko eta enplegu-suntsiketa areagotzeko arriskua dago, baldin eta espediente bat aurkeztu duten enpresek plantillak berregituratu behar badituzte. Bestetik, Next Generation EU (NGEU) funtsaren baliabideekin datozen urteetarako iragarritako pizgarri fiskala nahikoa izan daiteken arren, ez da planaren agenda osatzen duten proiektuen memoriarik eman, ez eta hura ezartzeko egutegirik ere. Era berean, ez da erraza jakitea proiektu horien arteko zeintzuk egingo ziratekeen NGEU gabe ere. Horren guztiaren ondorioz, zaila da azken eragina edo urtez urte izango duena baloratzea.

Agertoki ekonomiko honen gaineko arriskuak ziurgabetasun handiko bi eremutan kokatzen dira. Alde batetik, pandemiaren bilakaera, susperraldirako oztopo nagusi gisa. Kasu berrien intzidentzia osoa, bi aldeetan, handiagoa izan zen Nafarroan Espainiako batez bestekoan baino. Nolanahi ere, funtsezkoa da osasun-sistemak tentsio handiagoko egoerei aurre egiteko duen gaitasuna hobetzea, eta tratamendurako sendagai eraginkorrak garatzea txerto bat iristen den bitartean. Kontsumoa udan suspertu zen arren, urriaren erdialdetik aurrera, kutsatze alde berriak mugikortasuna eta jarduera ekonomiko murrizteko neurriak hartu zituen, zertxobait lehenago Nafarroan eta, beraz, gastua duela urtebeteko mailaren azpitik kokatu zen berriro. Eta horren arrazoiak ez dira soilik kutsatzearen beldurra eta bigarren olatu horrek eragin eskaitza-murrizketak: lan-merkatuaren egoera eta enpresa-kaudimenaren gaineko arriskuak ere badira tartean.

Nolanahi ere, egoera onuragarriagoak izan daitezke. Proba-fase aurreratu batean dauden txerto kopuruak, baita zenbait herrialderen onarpenak ere, probabilitatea handitzen du hurrengo urte eta erdian erremedio eraginkorren bat izateko. Gainera, aurreikusen da datorren urtearen bigarren erdian hazkundera bizkortu daitekeela, batez ere inbertsioarena, eta hori elkarrelika liteke Europar Batasun osoan aldi berean emango den Next Generation EU (NGEU) programaren bidezko bultzadarekin. Hemen aurkezten diren aurreikuspenen arabera, inbertsio handiagoren ondorio esanguratsuak 2021eko hirugarren hiruhilekotik aurrera baino ez dira hautemango, eta, ondorioz garrantzitsuenak, hurrengo urteetan. Proiektuak gobernatzeko eta gauzatzeko sistema egokiak, bultzada fiskal baten eta hurrengoaren arteko balizko arrakala ixten lagun lezakete, eskura dauden Europako funtsei proiektu egokiak aurkeztuz, eta horiekin batera egiturazko erreforma handinahiak eginez. Zehazki, lan-merkatuaren, ondasun eta zerbitzuen merkatuaren, produktibitatearen edo finantza publikoen iraunkortasunaren funtzionamendua hobetzea dagokionez. Tokiko eta eskualdeko gobernuekiko hurbiltasuna eta lankidetzaz ere funtsezkoak izango dira proiekturik eraginkorrenak identifikatzeko eta, horiek hobeto gauzatzeko, arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaz gain; ildo horretan, Navarra Green planak ekimen interesgarriak ditu zenbait arlotan, hala nola energia berriztagarrietan. Estatuko Aurrekontu Orokorrek laster onartzeak edo Espainiako eta Nafarroako ekonomiaren hazkunde-gaitasuna hobetzeko neurrietan aurreratzeak argitalpen honetan aurreikusitakoak baino hazkunde handiagoak ekar litzake.

LEGE OHARRA

BBVA Research-eko sailak egindako dokumentu honek dibulgazio-izaera du, eta egindako datari dagozkion datuak, iritziak eta estimazioak ditu, bertan landutakoak edo fidagarri irizten diegun iturrietatik datozenak edota berorietan oinarrituta egin direnak; hala ere, BBVAk ez ditu bere kabuz egiaztatu beroriek. Hortaz, berorien zehaztasunari, osotasunari edo zuzentasunari buruzko bermerik ez du ematen BBVAk, ez berariaz eta ez modu inplizituan.

Dokumentu honetan izan daitezkeen estimazioak oro har onartuta dauden metodologiak erabiliz landu dira, eta halakotzat hartu behar dira, hau da, aurreikuspen edo proiektioak. Aldagai ekonomikoen bilakaera historikoak (positiboa edo negatiboa) ez du bermatzen etorkizunean bilakaera baliokidea izango dutenik.

Dokumentu honen edukiak aldaketak izan ditzake, aurretiazko abisurik gabe, adibidez, testuinguru ekonomikoaren arabera edota merkatuaren gorabeheren arabera. BBVAk ez du inolako konpromisorik hartzen ez dokumentua eguneratzeko eta ez aldaketa horien berri emateko ere.

BBVAk ez du beregain inolako erantzukizunik dokumentu hau edo bertako edukia erabiltzearen ondorioz zuzenean edo zeharka gerta daitezkeen inolako galeraren aurrean.

Ez dokumentu hau eta ez jasotzen duen edukia ere ez dira inolaz ere eskaintza, gomendio edo erosketa-eskaera, aktibo edo tresna finantzarioak erosteko, inbertsioak desegiteko edo interesak lortzeko, eta ezin dute izan inolako kontratu, konpromiso edo erabakiren oinarri.

Dokumentu honek gara ditzakeen aldagai ekonomikoekin lotuta egon daitezkeen aktibo finantzarioetan egin daitezkeen inbertsioei dagokienez, irakurleek argi eta garbi izan behar dute ezin dutela dokumentu hau beren inbertsioei buruzko erabakiak hartzeko oinarritzat hartu, eta inbertsio-produktuen eskaintzak egin diezazkieketen pertsonak edo erakundeak legez behartuta daude horrelako erabaki bat hartzeko beharrezkoa duten informazio guztia ematera.

Honako dokumentu honen edukia jabetza intelektualari buruzko legediak babesten du. Berariaz debekatuta dago berau erreproduzitzea, aldatzea, banatzea, publikoki zabaltzea, eskuragarri jartzea, zatiak ateratzea, berriro erabiltzea edo bidaltzea edo beste edozein helburutarako erabiltzea, edozein bitarteko edo prozedura medio, legez baimendutako kasuetan salbu eta BBVAk berariaz emandako baimena dutenean salbu.

Txosten hau prestatu du:

Ekonomista Burua

Miguel Cardoso

miguel.cardoso@bbva.com

Joseba Barandiaran
joseba.barandia@bbva.com
+34 94 487 67 39

Giancarlo Carta
giancarlo.carta@bbva.com
+34 673 69 41 73

Juan Ramón García
juanramon.gj@bbva.com
+34 91 374 33 39

Félix Lores
felix.lores@bbva.com
+34 91 374 01 82

Pilar Mas
mariapilar.mas@bbva.com
+34 91 374 83 94

Virginia Pou
virginia.pou@bbva.com
+34 91 537 77 23

Pep Ruiz
ruiz.aguirre@bbva.com
+34 91 537 55 67

Angie Suárez
angie.suarez@bbva.com
+34 91 374 86 03

Camilo Andrés Ulloa
camiloandres.ulloa@bbva.com
+34 91 537 84 73

Rubén Veiga
ruben.veiga@bbva.com
+34 638 59 35 17

INTERESDUNAK ZUZENDU HONA:

BBVA Research: Calle Azul kalea, 4. Edificio La Vela eraikina – 4 eta 5. solairuak. 28050 Madril (Espainia).
Tel.:+34 91 374 60 00 eta +34 91 537 70 00 / Fax:+34 91 374 30 25
bbvaresearch@bbva.com www.bbvaresearch.com

